

Hiri txirrindulariak

Ikasbiletik hartua eta IKAn moldatua



1- Autoak eta bizikletak elkarrekin

Testua irakurri bitartean aukeratu hutsune bakoitzeko hitz/molde egokia.

Autozaleak eta txirrindulariak

Azken boladan autozaleen eta txirrindularien arteko istripuak albiste triste bihurtu dira. Triste istripuak ez direlako ____1____ tartean hildakoak daudelako, batzuetan gidariak ____2____ egin duelako... Orain esango dugu zein diren istripurik ____3____ eta zer egin behar duen gidariak eta zer txirrindulariak istripuak gutxitzeko edo saihesteko.

Zergatik gertatzen dira istripuak?

Oro har, arreta ____4____ da istripuen arrazoi nagusia. Bigarrena, esperientzia falta errepidean. Eta hirugarrena, alkoholaren edo drogen ____5____. Baita nekea ere. Edo abiadura ____6____.

Istripurik ohikoenak

- Autoaren edo kamioiaren eskuinean doa txirrindularia, ibilgailutik ____7____. Auto edo kamioiaren ____8____ eskuinera biratzeko maniobra egiten du, eta txirrindularia ibilgailuaren puntu ____9____ dagoenez, talka egiten dute. Beste kasu batzuetan ere, bihurguneetan, adibidez, auto- edo kamioi-gidariak ez du ____10____ ikusten txirrindularia non dagoen.
- Txirrindulariak bere norabidea ____11____ aldatzen du: auto- edo kamioi-gidariak ez du balazta zapaltzeko nahikoa denborarik.
- Autoa edo kamioia eskuinetik doa, ia bide-bazterretik, eta halako batean, bihurgunea (gunea, helmuga), eta bihurgunearen erdian, txirrindularia. Gidariak askotan ez du frenatzeko denborarik (astiro, garaia) izaten.
- Txirrindularia aurreratzeko ____12____ gutxiegi uztea (1,5 metro baino gutxiago).

- Autoa aparkatzen denean gidariak ez du begiratzeko ___13___ datorren errepidetik edo alboko bidegorritik, eta atea zabaltzean, honen aurka jotzen du txirrindulariak. Estatistikek diote, hala ere, gidariak gehiago ___14___ dutela kopilotuek baino.

Gidarientzako aholkuak

- Arretaz ___15___: asko ugalduta mugikorretik hitz egiteagatik gertatzen diren istripuak.
- Txirrindularia aurreratzean, ahal ___16___, 1,5 metroko tarte utzi. Ez aurreratu abiada ___17___: ibilgailuaren aire-zurrunbiloak lurrera bota dezake txirrindularia.
- Ez aurreratu ___18___ autoa kontrako noranzkoan txirrindularia badator. Debekatuta dago.
- Kontrako noranzkoan inor ez badator, arriskurik ez badago, gidariak txirrindularia aurreratu dezake, ___19___ eta errepide-erdiko lerroa etengabea izan.
- Gutxi ezagutzen duzun bidean klaxona erabili, ___20___ entzuteko. Baina txirrindularia hurbil badago ez, beldurtu daiteke-eta. ___21___ erabili klaxona txirrindulariari presa sartzeko.
- Egin behar duzun maniobra ___22___ adierazi, ez azken unean. Horrela ez duzu balazta zakar sakatu beharko edo bat-batean noranzkoa ___23___ beharko.
- Biratzeko orduan, bidegurutze batean eta biribilgune batean, txirrindulariak du ___24___. Txirrindulariak taldean badoaz, taldeko ___25___ dute lehentasun hori.
- Mendateetan kontuz. Txirrindulariek, batzuetan, nahiz ___26___ erreitik jaisten joan, errepide-erdira joan behar izaten dute bihurtzean.
- ___27___ eguzkitsuetan gidatzeko, eguzkitako betaurreko onak erabili. (denontzako gomendioa).
- Aparkatutakoan, autotik ateratzeko atea ireki baino lehen, begiratu ___28___ edo albotik norbait datorren.

Txirrindularientzako aholkuak

- Kaskoa erabili hiriarteko ___29___, eta hiribarruan ere saiatu erabiltzen. Babesa ematen du.
- Zuk besteak ikustea, eta besteek zu ikustea, oso garrantzitsua da. Jantzi erantsi kolore ___30___ arropak, edo islagailuak. Tuneletan aurreko argi zuria erabili, zuk ikusteko eta zu ikus zaitzaten. Hiribarrurako, argiak jarri bizikletari, aurrean eta atzean.
- Erabili besoak, ezkerrera edo eskuinera biratu nahi duzula adierazteko: ___31___ adierazi maniobrak.
- Ahal bada, bazterbidetik joan, estuegia ez bada edo kristalez josita ez badago.
- Hiri artean, ahal baduzu, taldean joan. Kontuan izan, Hego Euskal Herrian uzten dutela txirrindulariak binaka, ___32___ parean joaten; Ipar Euskal Herrian, isuna jartzen diete elkarren parean doazen txirrindulariei.
- Zebra-bidean oinezkoak du ___33___, ez bizikleta-gainean doanak. Txirrindularia ___34___ bihurtzen da bizikleta eskuan badarama.
- Errespetatu semaforoak.
- Gogoratu alkoholemia-kontrolak txirrindulariei ___35___ egiten zaizkiela.
- Ez ibili sigi-saga autoen artean hiribarruan.
- Bizikleta gainean zoazela, ez hitz egin mugikorretik eta ez entzun musikarik aurikularrak jantzita.



- Bizikleta egoera onean eduki.
- Txirrindularientzako berariazko biderik edo bidegorririk ez badago, ____36____ joan behar du txirrindulariak, ez espaloitik.
- Kontuz oinezkoekin, asko sartzan dira bidegorrietan, batzuk ____37____, beste batzuk nahi gabe. Jo txirrina, entzun zaitzaten.
- Kontuz bidegorrien eta errepideen arteko bidegurutzeetan. Oso arriskutsuak dira.

1- gutxitzen / areagotzen / desegiten	20- besteak / besteek / besterik
2- joan / ihes / saihestu	21- ez / ezta / ezin
3- gehienak / ohikoenak / betikoak	22- aurrez / aurrenekoa / aurrera
4- falta / ezin / ez	23- jarraitu / aldatu / eraldatu
5- zerikusia / harremana / eragina	24- lehetasuna / aurrena / lehenaldia
6- egokia / desegokia / motela	25- batzuk / besteek / guztiek
7- urrun / gertuegi / ondoan	26- bera / bere / beraz
8- gidariak / agintariak / zuzendariak	27- Egun / Goiz / Egunero
9- hertsian / itsuan / etsian	28- azkenean / berriro / atzetik
10- ondo / hobeto / ados	29- errepideetan / izkinetan / auzoetan
11- batera / batik bat / bat batean	30- gutxiko / biziko / bakarreko
12- tarte / zati / arte	31- garaiz / tamainan / gainerik
13- norbait / nonbait / noizbait	32- elkarren / elkarri / elkar
14- arduratzen / begiratzan / errespetatzen	33- lehentasuna / lehentxoago / lehentasunezkoa
15- gidatu / jo / zapaldu	34- oinezkoa / oinezko / oinezko bezala
16- den / da / bada	35- izan ezik / ere / ezik
17- handiegian / txikian / handiagoan	36- autopistatik / bazterbidetik / errepidetik
18- aurrean / aurrena / aurreko	37- nahita / nahi eran / nahian
19- nahi / nahiz / zaren	



2- Isunak behar bezala ez dabilzan txirrindulariei

Donostiako udalak isunak jarriko dizkie arauak betetzen ez dituzten txirrindulariei.

Gai horri buruzko erreportajea egin dute Euskadi Irratian, eta gaiarekin zeresana duten protagonista batzuekin hitz egin: udaleko zinegotzi batekin, oinezkoekin eta txirrindulariekin

Entzun audioa eta esan ondoko esaldiak bat datozen ala ez audioak dioenarekin..



Txirrinik gabe doazenei 200 €-ko isuna jarriko diete.

- Egia
- Gezurra

Udan bakarrik jarriko dituzte isunak, sasoi horretan askoz istripu gehiago izaten dira eta.

- Egia
- Gezurra

Gizonezkoak kontatu duenez, duela gutxi bizikletan zihoan batek harrapatu zituen bera eta emaztea.

- Egia
- Gezurra

Gizonaren ustez, isunak jartzea baino hobeto izango litzateke sariak ematea ondo portatzen diren txirrindulariei.

- Egia
- Gezurra

Bidegorririk ez badago, neska beti espaloitik joaten da.

- Egia
- Gezurra

Haurdun dagoen oinezkoak dioenez, txirrindulariek errespetatzen dituzte oinezkoak.

- Egia
- Gezurra

Gizonezkoaren ustean, oinezko eta txirrindularien arteko elkarbizitza okerrera doa.

- Egia
- Gezurra

Neska konforme dago bizikletek ez dutela espaloitik ibili behar, baina musika entzuteko debekuarekin ez.

- Egia
- Gezurra

3- Bizikleta gaineko eskarmentua

Komentatu ondorengo galderak zure ikaskideekin

- Nola mugitzen zara zu hirian? Autoz, bizikletaz, patinetez, garraio publikoaz... zein da zure eskarmentua?
- Iruditzen al zaizu bizikleta alternatiba ona dela hirian mugitzeko? Zergatik?
- Inoiz izan duzu esperientzia on edo txar bat hiriko txirrindulariren batekin edo hirian bizikletaz ibiltzeagatik?
- Ezagutzen al duzu hirian bizikletaz ibiltzeagatik isuna jarri dioten norbait? Edo istripua izan duen norbait?
- Uste duzu bidezkoa dela txirrindulariei isunak jartzea? Zein kasutan bai eta zein kasutan ez?



1- Autoak eta bizikletak elkarrekin

Autozaleak eta txirrindulariak

Azken boladan autozaleen eta txirrindularien arteko istripuak albiste triste bihurtu dira. Triste istripuak ez direlako (**gutxitzen**) tartean hildakoak daudelako, batzuetan gidariak (**ihes**) egin duelako... Orain esango dugu zein diren istripurik (**ohikoenak**) eta zer egin behar duen gidariak eta zer txirrindulariak istripuak gutxitzeko edo saihesteko.

Zergatik gertatzen dira istripuak?

Oro har, arreta (**falta**) da istripuen arrazoi nagusia. Bigarrena, esperientzia falta errepidean. Eta hirugarrena, alkoholaren edo drogen (**eragina**). Baita nekea ere. Edo abiadura (**desegokia**).

Istripurik ohikoenak

- Autoaren edo kamioiaren eskuinean doa txirrindularia, ibilgailutik (**gertuegi**). Auto edo kamioiaren (**gidariak**) eskuinera biratzeko maniobra egiten du, eta txirrindularia ibilgailuaren puntu (**itsuan**) dagoenez, talka egiten dute. Beste kasu batzuetan ere, bihurguneetan, adibidez, auto- edo kamioi-gidariak ez du (**ondo**) ikusten txirrindularia non dagoen.
- Txirrindulariak bere norabidea (**bat-batean**) aldatzen du: auto- edo kamioi-gidariak ez du balazta zapaltzeko nahikoa denborarik.
- Autoa edo kamioia eskuinetik doa, ia bide-bazterretik, eta halako batean, bihurgunea (gunea, helmuga), eta bihurgunearen erdian, txirrindularia. Gidariak askotan ez du frenatzeko denborarik (astiro, garaia) izaten.
- Txirrindularia aurreratzeko (**tarte**) gutxiegi uztea (1,5 metro baino gutxiago).
- Autoa aparkatzen denean gidariak ez du begiratzen (**norbait**) datorren errepidetik edo alboko bidegorritik, eta atea zabaltzean, honen aurka jotzen du txirrindulariak. Estatistikek diote, hala ere, gidariak gehiago (**begiratzen**) dutela kopilotuek baino.

Gidarientzako aholkuak

- Arretaz (**gidatu**): asko ugalduta mugikorretik hitz egiteagatik gertatzen diren istripuak.
- Txirrindularia aurreratzean, ahal (**bada**), 1,5 metroko tarte utzi. Ez aurreratu abiada (**handiegian**): ibilgailuaren aire-zurrunbiloak lurrera bota dezake txirrindularia.
- Ez aurreratu (**aurreko**) autoa kontrako noranzkoan txirrindularia badator. Debekatuta dago.
- Kontrako noranzkoan inor ez badator, arriskurik ez badago, gidariak txirrindularia aurreratu dezake, (**nahiz**) eta errepide-erdiko lerroa etengabea izan.
- Gutxi ezagutzen duzun bidean klaxona erabili, (**besteek**) entzuteko. Baina txirrindularia hurbil badago ez, beldurtu daiteke-eta. (**Ez**) erabili klaxona txirrindulariari presa sartzeko.
- Egin behar duzun maniobra (**aurrez**) adierazi, ez azken unean. Horrela ez duzu balazta zakar sakatu beharko edo bat-batean noranzkoa (**aldatu**) beharko.
- Biratzeko orduan, bidegurutze batean eta biribilgune batean, txirrindulariak du (**lehentasuna**). Txirrindulariak taldean badoaz, taldeko (**guztiak**) dute lehentasun hori.
- Mendateetan kontuz. Txirrindulariek, batzuetan, nahiz (**bere**) erreitik jaisten joan, errepide-erdira joan behar izaten dute bihurguneetan.
- (**Egun**) eguzkitsuetan gidatzeko, eguzkitako betaurreko onak erabili. (denontzako gomendioa).
- Aparkatutakoan, autotik ateratzeko atea ireki baino lehen, begiratu (**atzetik**) edo albotik norbait datorren.

Txirrindularientzako aholkuak

- Kaskoa erabili hiriarteko (**errepideetan**), eta hiribarruan ere saiatu erabiltzen. Babesa ematen du.

- Zuk besteak ikustea, eta besteek zu ikustea, oso garrantzitsua da. Jantzi erantsi kolore (biziko) arropak, edo islagailuak. Tuneletan aurreko argi zuria erabili, zuk ikusteko eta zu ikus zaitzaten. Hiribarrurako, argiak jarri bizikletari, aurrean eta atzean.
- Erabili besoak, ezkerrera edo eskuinera biratu nahi duzula adierazteko: (garaiz) adierazi maniobrak.
- Ahal bada, bazterbidetik joan, estuegia ez bada edo kristalez josita ez badago.
- Hiri artean, ahal baduzu, taldean joan. Kontuan izan, Hego Euskal Herrian uzten dutela txirrindulariak binaka, (elkarren) parean joaten; Ipar Euskal Herrian, isuna jartzen diete elkarren parean doazen txirrindulariei.
- Zebra-bidean oinezkoak du (lehentasuna), ez bizikleta-gainean doanak. Txirrindularia (oinezko) bihurtzen da bizikleta eskuan badarama.
- Errespetatu semaforoak.
- Gogoratu alkoholemia-kontrolak txirrindulariei (ere) egiten zaizkiela.
- Ez ibili sigi-saga autoen artean hiribarruan.
- Bizikleta gainean zoazela, ez hitz egin mugikorretik eta ez entzun musikarrik aurikularrak jantzita.
- Bizikleta egoera onean eduki.
- Txirrindularientzako berariazko biderik edo bidegorririk ez badago, (errepidetik) joan behar du txirrindulariak, ez espaloitik.
- Kontuz oinezkoekin, asko sartzen dira bidegorrietan, batzuk (nahita) , beste batzuk nahi gabe. Jo txirrina, entzun zaitzaten.
- Kontuz bidegorrien eta errepideen arteko bidegurutzeetan. Oso arriskutsuak dira.

2- Isunak behar bezala ez dabiltzan txirrindulariei

- Txirrinik gabe doazenei 200 €-ko isuna jarriko diete. **(Gezurra)**
- Udan bakarrik jarriko dituzte isunak, sasoi horretan askoz istripu gehiago izaten dira eta. **(Gezurra)**
- Gizonezkoak kontatu duenez, duela gutxi bizikletan zihoan batek harrapatu zituen bera eta emaztea. **(Gezurra)**
- Gizonaren ustez, isunak jartzea baino hobeto izango litzateke sariak ematea ondo portatzen diren txirrindulariei. **(Gezurra)**
- Bidegorririk ez badago, neska beti espaloitik joaten da. **(Gezurra)**
- Haurdun dagoen oinezkoak dioenez, txirrindulariek errespetatzen dituzte oinezkoak. **(Egia)**
- Gizonezkoaren ustean, oinezko eta txirrindularien arteko elkarbizitza okerrera doa. **(Egia)**
- Neska konforme dago bizikletek ez dutela espaloitik ibili behar, baina musika entzuteko debekuekin ez. **(Egia)**

